



Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

Bildutakoak:

Patxi Iburguren Etxeberria	Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik
Pepe Iparraguirre Balda	Andoaingo Udaletik
Iratxe Begiristain Otegi	Usurbilgo Udaletik
Jorge Segurado Iriondo	Urnietako Udaletik
Agustín Valdivia Calvo	Lasarte-Oriako Udaletik
Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragako Udaletik

Akta Zenbakia
00000008

Eguna
2024/07/08

Iraupena

-

Asistentzia teknikoa:

Julen Mungia Gorrotxategi	Idazkari-Kontuhartzailea
Helene del Río Laboa	Zuzendaria

Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

Parte hartzen du ere

Gai Zerrenda

- | | |
|---|---|
| 1.- 2024/06/17(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 17/06/2024. |
| 2.- Elkar Ekin egitasmoaren aurkezpena. Berrikuspena eta hurrengo pausoak azaltzea | 2.- Presentación del proyecto Elkar Ekin. Revisión y explicación de los siguientes pasos |
| 3.- Hazilan + egitasmoaren hitzarmena onartzea | 3.- Aprobación del convenio del proyecto Hazilan + |
| 4.- Lanpostu Zerrendaren moldaketen proposamen teknikoa | 4.- Proposición técnica de las modificaciones de la Relación de Puestos de Trabajo |
| 5.- Turismo arloaren inguruko hausnarketa | 5.- Reflexión del área de Turismo |
| 6.- Galdera, erregu eta proposamenak. | 6.- Ruegos, preguntas y propuestas. |

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

1.- 2024/06/17(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/06/17 datako batzaraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak aho batez, ontzat eman du.

2.- Elkar Ekin egitasmoaren aurkezpena. Berrikuspena eta hurrengo pausoak azaltzea

Beterri-Buruntza Mankomunitateko Enplegu teknikaria, Enara Garcia, bertaratu da Elkar Ekin egitasmoaren aurkezpena egitera, batik bat, azaltzeko zer egin dugun, non gauden, eta nora goazen. Gobernantza eredu kolaboratiboaren baitan sareak adhesio dokumentu bat sinatu beharko duela adierazi du eta datozen bi urteetako Elkar Ekin egitasmoko programak sareak berak adostuko dituela eskualdeko beharren arabera. Aurkezpenerako PPT batetaz baliatu da.

Aurkezpenarekin amaitutakoan, tarte bat utzi da norbaitek zerbait esan, galdetu edo gehitu nahi bazuen, eta inork ez du ezer esan. Denak ondo ikusi dute aurkezpena eta Enararen partaidetza eskertu dute.

3.- Hazilan + egitasmoaren hitzarmena onartzea

Zuzendariak esan du hitzarmena dugun arren, Garapenek batzordea baino lehen datu ekonomikoak jasotzen dituen alea bidaltzeko asmoa zuela eta ez duela bete., Hortaz, ez da hitzarmena onartuko. Hala ere, onartu beharko den hitzarmena oso antzekoa izango dela adierazi du, eta aurrerago egitasmoa martxan jartzeko presa egongo denez norbaitek egitasmoaren inguruko galderarik badumomentu egokia dela horiek argitzeko. Inork ez du ezer aipatu beraz, hurrengo bileran proiektua onartzeko aurkeztuko da.

Asmoa irailerako martxan egotea homologatutako entitate baten bitartez. 2025etik aurrerako egitasmoetarako lizitazio bat atera beharko dugu, baina horretarako lehenago argitu beharko da homologatutako zentroen inguruan zein aurreikuspen dagoen.

Astigarragako ordezkariak galdetu du zer den homologatzen dena, erakundea edo teknikaria, eta Zuzendariak erantzun dio biak homologatu behar direla.

4.- Lanpostu Zerrendaren moldaketen proposamen teknikoa

Zuzendariak, prestatutako PPT baten laguntzaz, Lanpostu Zerrendaren proposamen teknikoa mahairatu du. Adierazi duenez, Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuta,

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

biztanle eta enpresa kopuru aldetik, eskualde handienetakoa gara. Gutxi gorabehera konparatutako eskualdeen biztanle eta enpresa kopuruak bikoizten ditugu, baina, era berean, gure plantillako langile kopurua 10 pertsonakoa besterik ez da, gainontzeko mankomunitateko eta garapen agentziena baina txikiagoa.

Horregatik, gaur egun indarrean dagoen LZn 5 teknikari gehiago kontratatzea proposatzen da, zehazki, 1 enplegu teknikari, 2 enpresa teknikari, 1 ekintzailtza-teknikari eta turismoko teknikari 1.

Horretaz gain, Zuzendariak adierazi du enplegu eta prestakuntza eta enpresa eta sustapeneko departamentuetan bere departamentua antolatuko duen koordinatzaile bat izendatzea komenigarria dela, izan ere, pertsona askoko departamentuan beharrezkoa ikusten duelako norbait egotea departamentua koordinatzen.

Azkenik, kronograma proposamen bat mahairatu du, kontuan hartuta zeintzuk diren behar teknikoak. Hortaz, proposatu du 2024ko azaro-abenduan enplegu teknikari bat sartzea, 2025ko lehenengo hiruhilekoan euskara eta komunikazio teknikari bat jardunaldi erdian (jakinik, batez ere, komunikazioan lan handia dagoela), turismo teknikari 1 eta enpresa eta sustapen teknikari 1. Proposamen hau eztabaida sortu eta erabakiak hartzen joateko planteatu dela adierazi du. Premiazko beharrak: enpreguko bigarren teknikaria 2024ean eta enpresa eta komunikazio eta euskara teknikaria 2025ean ikusten dira.

Azalpenarekin bukatutakoan, Andoaingo ordezkariak esan du inkorporazio horiek justifikatuta daudela, adierazitako beharrak direla eta. Hala ere, hau dena batzen duen txosten tekniko bat izatea gustatuko litzaiokeela adierazi du.

Urnietako ordezkariari ere ondo iruditu zaio proposamen tekniko hori. Kasu honetan ere, berari ere gustatuko litzaioke txosten tekniko bat izatea eta, beste alde batetik, hein batean kezkatzen dio langile horiek lanean hastean lan egiteko edukia izatea. Bukatzeko, esan du ondo iruditzen zaiola Enplegu Soziala bultzatzea eta sustatzea, baina gustatuko litzaiokeela ere beste adar batzutan lan egitea, zehazki, enpresen lehiakortasunean.

Astigarragako ordezkariak esan du bera ere ados dagoela enpresen lehiakortasunean lan egiteko eta hemendik alor hori lantzeko eta sustatzeko. Gainera, adibide pare bat jarri ditu behar hori azalertzeko: ondorengotza-prozesuak, kudeaketa-sistema berriak, digitalizazioa... Esan du programa eta proiektu desberdinak daudela gai hauek lantzeko eta horri ere eutsi beharko geniekela.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

Lehendakariak esan du ados dagoela proposamen teknikoarekin eta ordezkariak egindako iruzkinekin. Gainera, gehitu du intentzioa dela TEE eta Lehen Aukera programen bidez pertsona bana kontratatzea, lanpostu ez estrukturalak betetzeko eta erantzuna emateko momentuko behar puntual bati.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du argi ikusten duela ezin diegula erantzuna eman eskualdeko beharrei gaur egun daukagun plantillarekin. Hala ere, nahiz eta proposamen teknikoarekin ados egon, bi kezka nagusi azalatu ditu:

1. Langileen birjarpen-tasak (tasa de reposición de efectivos) ezarri lituzkeen mugak
2. Kostua. Esan du aipatutako 5 inkomporazioak **kgolpe**z egitea gehiegizkoa izan daitekeela, izan ere, bat-batean, udalerriek ezin dutelako udal-ekarpena gehiegi igo.

Lasarte-Oriako ordezkariaren kezka nagusiei erantzuteko, Zuzendariak eta Idazkari-Kontuhartzaileak beste PPT bat erabili dute azalpen gehiago emateko asmotan (azken PPT hau aldeztatik ez zaiela bidali esan zaie ordezkariari, baina bidaliko zaiela).

PPT berri honetan, BBMko Lanpostuen Zerrendaren aldaketaren finantzaketa eta prozesuaren proposamena aurkeztu zaie. Lehenik eta behin, Zuzendariak azaldu die GFAtik hitzarmen bitartez finantzatzen dituen gaiak, besteak beste, Turismoan 50.000€ urteko, Jasangarritasun energetikoan 55.000€ urteko eta Ekonomia sustapenerako zer proiektu/programa dauden ere azaldu du. Azken honen barruan, berrikuntza eta internazionalizaziorako ETE DIGITALA dugula esan du, eta BBMk gehienez 65.000€ jasotzen dituela, proiektu estrategikoetarako Elkar Ekin dugula (264.478€/urteko) eta Ekonomia sustapenerako Eskualdeak (108.150€/urteko) eta Txekin/Emekin(bideragarritasun plan bakoitzeko). Bukatzeko, Eskualdeak programari buruz esan du GFAtik deitu ziotela esanez zergatik eskatu dugun hain zenbateko baxua, izan ere, gure eskualdeko ezaugarrien arabera askoz ere diru gehiago dagokizkigulako (hirugarren eskualdea gara). Eskualdeak programako 1. Atalari buruz esan GFAk inbertsioaren %50 finantzatzen duela eta gehienez 47.150€ finantzatuko digutela, baldin eta gure inbertsioa 94.300€koa bada (gure kasuan gutxiago eskatu dugu). Honetaz gain, programa honetako 2. atalean GFAk %60-%70 finantzatzen du eta gehienez ere 41.800€, baldin eta gure inbertsioa 60.000€koa bada (kasu honetan ere, gutxiago eskatu dugu). Azkenik, 3. Atalean GFAREN finantzaketa 4.800€-5.200€ izango litzateke enpresa bakoitzeko, eta hori gure barne orduen arabera joango da.

Ondoren, idazkari-kontuhartzaileak jarraitu du azaltzen modu grafikoan zein izango zen pertsonal-kontratazioaren prozedura eta eman beharreko pausak, nahiz eta horiek aldeztatik azalduta egon eta azalpen hori sakon landuta egon berak duela hilabete bat inguru egindako txosten juridikoan, Turismo-teknikaria inkomporatzeko eztabaida egon zenean Gobernu Batzarrean.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

Hortaz, Udal ordezkari politikoek kontratazioak egitea adosten badute, gogorarazi du Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa aldatu beharko litzatekeela eta horretarako, aldez aurretik, sindikatuekin negoziatu beharko dela, Batzar Nagusiaren onarpena lortu eta GAOn argitaratu aldaketa hori. Lanpostuen Zerrendan eta Plantilla Organikoan 5 teknikari berri sartzea gauza bat da eta beste bat lanpostu horiek 2024ko Lanpostuen Eskaintza Publikoan (LEP/OPE). Aurten LEP bat argitaratu behar da gaur egun bitarteko funtzionario bidez betetako lanpostuak baitan hartuko dituenak (idazkari-kontuhartzailearena izan ezik). Aurrekoetan azaldu bezala, kontuan izan behar dute ez dagoela argi aurten langileen birjartze-tasa aplikagarria den edo ez, Estatuko Aurrekontu Orokorrek luzatuta daudelako eta, beraz, ez dakigulako 2023ko Aurrekontu Orokorretako muga hori aplikatzen den edo ez. Gai eztabaidagarria dela adierazi du, eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoko departamentua muga hori aurten aplikatzen ez delaren aldekoa da esan du, nahiz eta beste batzuk kontrakoa pentsatu. Orduan, beste erabaki bat da 2024ko LEP/OPEN zenbat langile sartu (1,2,3,4 edo 5ak). Bestalde, adierazi du, azkenean, erabakitzen badute 2024ko LEPn sartzeko lanpostu berri horiek, arriskua izan daitekeela norbaitek errekurtsio bat jartzea adiministrazio-egintzei: LEPari, hautaketa-prozesuen deialdiari, funtzionarioen izendapenari..., nahiz eta kontuan hartu behar den ekintza positibo bat dela, printzipioz, inorri kalterik sortzen ez diona eta horrek helegiteak aurrera egitea zaildu dezakeela.

Bukatzeko, inkorporazio hauek sor dezaketen kostu gehigarriari dagokionez, idazkari-kontuhartzaileak adierazi du teknikari baten urteko kostu osoa, gutxi gorabehera, 61.747€koa dela.

Hortaz,, uztailak 22, astelehenean Batzar Nagusia dugula kontuan izanda, lehenbailen Gobernu Batzarkideen erabakia jakitea beharko genuke.

Azalpenarekin bukatutakoan, Astigarragako ordezkariak gehitu du, iruditzen zaiola, Orioko udalerrriak Astigarragari edo hura baino txikiagoak diren eskualdeko udalerrriaren bikoitza jartzen duela udal-ekarpen gisa Urola Kosta Mankomunitatearentzako. Honetaz gain, esan du gustatuko litzaiokela estimazio bat izatea zenbat handituko liratekeen udal-ekarpenak hurrengo urteetan plan hau aurrera eramanez gero. Bera ez omen zen harrituko, azken batean, ekarpenak bikoiztu behar izateaz. Hala ere, bera alde azaldu da lanpostu berri horiek 2024ko LEPn sartzeko.

Lasarte-Oriako eta Urnietako ordezkariak ere esan dute gustatuko litzaiokela estimazio bat izatea udal-ekarpenei buruz.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

Mankomunitateak aurreratuak ditu datu horiek. Hortaz, idazkari-kontuhartzaileak eta zuzendariak konprometitu dira estimazio hori berrikusi eta lantzen jarraitu eta beraiei bidaltzeko lehenbailehen, nahiz eta aurreratu duten oso zaila dela hori modu zeatz eta erreal batean momentu honetan egitea, finantzatu daitezkeen barne orduak adieraziz batez ere.

5.- Turismo arloaren inguruko hausnarketa

Puntu honetan eztabaidatu da Turismoaren inguruko lanketak zer ikusia duelako Lanpostu Zerrendaren eta Plantillaren aldaketarekin. Erabaki beharko da gure gain hartzen den turismoa eta horretarako turismo-teknikari bat kontratatzen den, lizitazio baten bidez kanpoko beste enpresa bat kontratatzen den edo Behemendirekin jarraituko dugun gaur egun bezala.

Astigarragako ordezkariak esan du uste duela gure gain hartu behar dugula eta gu eskualdeko erreferente bihurtu behar garela Eusko Jaurlaritzaren aurrean. Horretarako, 2025ko urtarrilaren 1ean turismo teknikari bat behar dugu %100 gurekin lanean eta horregatik funtzionario-interino bat izendatuko luke, behin-behinean egon dadin LEPko deialdia bete arte. Horregatik esan du hoberena dela lanpoltsa batetik hartzea turismo teknikaria eta, bestela, hautaketa-prozesu azkar bat egitea.

Urnietako ordezkariak ere esan du bere ustez gure gain hartu behar dugula turismoa, interino baten bidez edo kanpoko beste enpresa baten bidez. Honetaz gain, bere betiko kezka adierazi du: ea nahikoa lan-karga izango duen.

Zuzendariak adierazi du turismoa gure gain hartzea nahi bada 2025era begira GFari dirulaguntzaren inguruko aldaketa irailean adierazi diezaiotegula eta turismoa 2025etik aurrera nola kudeatuko dugun eztabaidatzen jarraitu Lanpostuen Zerrendaren kontua argitzen joaten garen heinean. Batzordeak proposamenari oniritzia eman dio, hortaz, Zuzendaria GFari irailean turismoaren inguruko kudeaketaren aldaketa komunikatzekotan gelditu da, dirulaguntza izenduna Mankomunitatearen izenean jarri dezaten.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

6.- Galdera, erregu eta proposamenak.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

Ez da parte-hartzerik izan.

Etta beste aztergairik ezean, Idazkari-Koentuhartzaileak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 17/06/2024.

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión celebrada con fecha 17/06/2024, la Presidenta somete a votación su aprobación y la Junta de Gobierno por unanimidad, da el visto bueno a la misma.

2.- Presentación del proyecto Elkar Ekin. Revisión y explicación de los siguientes pasos

La técnica de Empleo de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza, Enara García, ha acudido a la presentación del proyecto Elkar Ekin para explicar, sobre todo, qué hemos hecho, dónde estamos y a dónde vamos. En el marco del modelo colaborativo de gobernanza, la red deberá firmar un documento de adhesión y los programas del proyecto Elkar Ekin de los próximos dos años serán consensuados por la propia red en función de las necesidades de la comarca. Se ha servido de un PPT para la presentación..

Al finalizar la presentación se ha dejado un espacio para que alguien dijera, preguntara o añadiera algo, y nadie ha dicho nada. Todos ven bien la presentación y agradecen la participación de Enara.

3.- Aprobación del convenio de Hazilan +

La Directora dice que aunque tenemos un Convenio, Garapen tenía intención de enviar un ejemplar con los datos económicos antes de la Comisión y no lo ha cumplido, por lo que no se va a aprobar el Convenio. Sin embargo, el Convenio que se va a tener que aprobar va a ser muy similar, y como más adelante va a haber prisa por ponerlo en mar-

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

cha, se ha preguntado si alguien tiene alguna pregunta sobre el proyecto para aclararlo. Nadie ha mencionado nada, por lo que en la próxima reunión se presentará para la aprobación del proyecto.

La intención es que esté operativa para septiembre a través de una entidad homologada. Tendremos que sacar una licitación para los proyectos a partir de 2025, pero para ello habrá que aclarar antes qué previsiones hay sobre los centros homologados.

El representante de Astigarraga pregunta qué es lo que se homologa, entidad o técnico, a lo que el Director responde que hay que homologar ambos.

4.- Propuesta técnica de modificaciones de la RPT

La Directora, con la ayuda de un PPT preparado, presenta la propuesta técnica de Relación de Puestos de Trabajo. Según indica, «comparando con el resto de comarcas de Gipuzkoa, en número de habitantes y empresas, somos una de las mayores comarcas». Duplicamos el número de habitantes y empresas de las comarcas más o menos comparadas, pero también que nuestra plantilla es de tan sólo 10 personas, inferior a la del resto de mancomunidades y agencias de desarrollo.

Por ello, en la RPT actualmente vigente se propone la contratación de 5 técnicos/as más, en concreto 1 técnico/a de empleo, 2 técnicos/as de empresa, 1 técnico/a de emprendimiento y 1 técnico/a de turismo.

Además, la Directora señala que en los departamentos de empleo y formación y de empresas y promoción es conveniente nombrar un coordinador que organice su departamento, ya que en el departamento multipersonal ve necesaria la presencia de alguien coordinando el departamento.

Por último, plantea una propuesta de cronograma teniendo en cuenta las necesidades técnicas. Por tanto, propone que en noviembre-diciembre de 2024 se incorpore un/a técnico/a de empleo, en el primer trimestre de 2025 un/a técnico/a de euskera y otro de comunicación a media jornada (sabiendo, sobre todo, que hay mucho trabajo en comunicación), 1 técnico/a de turismo y 1 técnico/a de empresa y promoción. Indica que esta propuesta se ha planteado para generar debate e ir tomando decisiones. Necesidades urgentes: incorporar el/la segundo/a técnico/a de empleo en 2024 y el técnico de empresa y comunicación y euskera en 2025.

Finalizada la exposición, el representante de Andoain manifiesta que dichas incorporaciones están justificadas por las necesidades expuestas. No obstante, señala que le gustaría tener un informe técnico que supusiera todo esto.

El representante de Urnieta también le parece bien esta propuesta técnica. En este caso, también le gustaría tener un informe técnico y, por otro lado, le preocupa en parte que

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

este personal tenga carga de trabajo en el momento de su incorporación. Por último, dice que le parece bien que se potencie el Empleo Social, pero que también le gustaría que se trabajara en otras ramas, en concreto en la competitividad de las empresas.

El representante de Astigarraga manifiesta su acuerdo con trabajar en la competitividad de las empresas y trabajar y promocionar este ámbito desde aquí. Además, pone un par de ejemplos para visibilizar esta necesidad: procesos de sucesión, nuevos sistemas de gestión, digitalización... Dice que hay diferentes programas y proyectos para trabajar estos temas y que habría que abordarlos.

La Presidenta manifiesta su conformidad con la propuesta técnica y con los comentarios de los representantes. Además, añade que la intención es contratar una persona a través de los programas TEE y Lehen Aukera para cubrir puestos no estructurales y dar respuesta a una necesidad puntual en el momento.

La representante de Lasarte-Oria comenta que ve claro que no podemos dar respuesta a las necesidades de la comarca con la plantilla que tenemos en la actualidad. Sin embargo, a pesar de estar de acuerdo con la propuesta técnica, pone de manifiesto dos preocupaciones principales:

1. Límites a la tasa de reposición de efectivos
2. Coste. Dice que hacer las 5 incorporaciones mencionadas de golpe puede ser excesivo, ya que los municipios no pueden subir, de repente, demasiado la aportación municipal.

Para responder a las principales inquietudes de la representante de Lasarte-Oria, la Directora y el Secretario-Interventor han utilizado otro PPT para mayor explicación (se les ha dicho que este último PPT no se ha enviado previamente a los representantes, pero que se enviará).

En este nuevo PPT se les presenta la financiación de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de BBM y la propuesta del proceso. En primer lugar, la Directora les explica los temas que se financian vía convenio desde la DFG, como son los de Turismo con 50.000 €/ año, Sostenibilidad energética con 55.000 €/ año y Proyectos/programas de promoción económica. Dentro de este último, señala que tenemos una PYME DIGITAL para la innovación y la internacionalización, y que BBM recibe un máximo de 65.000 €, tenemos Elkar Ekin para proyectos estratégicos (264.478 €/ año) y Promoción Económica Eskualdeak (108.150 €/ año) y Txekin/Emekin (plan de viabilidad). Por último, en cuanto al programa Eskualdeak, dice que le llamaron desde la DFG porque hemos pedido una cantidad muy baja, ya que según las características de nuestra comarca nos corresponde mucho más dinero (somos la tercera comarca). En cuanto al apartado 1 del programa de Eskualdeak, decir que la DFG financia el 50% de la inversión y nos financiarán hasta 47.150€ si nuestra inversión es de 94.300€ (en nuestro caso hemos pedido menos). Además, en el apartado 2 de este programa la DFG financia un 60%-70% y un máximo de 41.800 €, si nuestra inversión es de 60.000€ (que también en este caso hemos pedido

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

menos). Por último, en el apartado 3 la financiación de la DFG sería de 4.800€-5.200€ por empresa, lo cual dependerá de nuestras horas internas.

A continuación, el Secretario-Interventor continúa explicando de forma gráfica cuál sería el procedimiento de contratación de personal y los pasos a dar, aunque estén previamente explicados y se haya trabajado en profundidad en el informe jurídico elaborado por él mismo hace aproximadamente un mes, cuando hubo un debate en la Junta de Gobierno para incorporar al/ a la Técnico/a de Turismo.

Por lo tanto, en el caso de que los/as políticos/as acuerden realizar contrataciones, recuerda que habría que modificar la Relación de Puestos de Trabajo y la Plantilla Orgánica, para lo cual, previamente, habrá que negociar con los sindicatos, obteniendo la aprobación de la Asamblea General y publicando dicha modificación en el BOG. La inclusión de 5 nuevos técnico/as en la Relación de Puestos de Trabajo y en la Plantilla Orgánica es una cosa y otra en la Oferta Pública de Empleo de 2024 (OPE). Este año hay que publicar una OPE que cubra los puestos actualmente ocupados por funcionarios/as interinos/as (excepto Secretario-Interventor). Como se ha expuesto en anteriores ocasiones, han de tener en cuenta que no está claro si es de aplicación la tasa de reposición de efectivos este año, ya que los Presupuestos Generales del Estado están prorrogados y por tanto se desconoce si se aplica este límite de los Presupuestos Generales de 2023. Dice que es un tema controvertido y que el Departamento de Gobernanza Pública del Gobierno Vasco defiende que este límite no se aplica este año, aunque otros piensen lo contrario. Otra decisión es el número de trabajadores que se incorporan a la OPE 2024 (1,2,3,4 ó 5). Por otra parte, señala que si finalmente deciden incluir estos nuevos puestos en la OPE 2024, pueden correr el riesgo de que alguien interponga un recurso a los actos administrativos: OPE, convocatoria de procesos selectivos, nombramiento de funcionarios..., aunque hay que tener en cuenta que se trata de una acción positiva que, en principio, no perjudica a nadie, lo que puede dificultar que el recurso prospere.

Por último, en cuanto al coste adicional que pueden generar estas incorporaciones, el Secretario-Interventor señala que el coste total anual de un/una técnico/a es aproximadamente de 61.747€.

Por lo tanto, teniendo en cuenta que tenemos la Asamblea General el próximo lunes 22 de julio, necesitaríamos conocer la decisión de los miembros de la Junta de Gobierno de cada uno de ellos.

Finalizada la exposición, el representante de Astigarraga añade que considera que el municipio de Orio pone como aportación municipal para la Mancomunidad de Urola Kosta el doble que el municipio de Astigarraga o de municipios de la comarca de menor tamaño. Además, dice que le gustaría tener una estimación de cuánto aumentarían las aportaciones municipales si se llevara adelante este plan en los próximos años. Dice que no le sorprende que, a fin de cuentas, tuvieran que duplicar las aportaciones. No obstante, se muestra favorable a la inclusión de estos nuevos puestos en la OPE 2024.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta

2024ko uztailaren 08a

La representante de Lasarte-Oria y el de Urnieta también señalan que les gustaría tener una estimación sobre las aportaciones municipales.

La Mancomunidad tiene avanzados estos datos. Por lo tanto, los secretarios-interventores y los directores se comprometen a revisar y seguir trabajando en esta estimación y remitirla a ellos lo antes posible, aunque adelantan que es muy difícil hacerlo de una manera clara y real en este momento, señalando sobre todo las horas internas que se pueden financiar..

5.- Reflexión sobre el área de turismo

Se debate este punto porque el trabajo en torno al Turismo tiene que ver con la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo y de la Plantilla. Habrá que decidir si asumimos el Turismo y para ello se contrata a un técnicx de turismo, si mediante una licitación se contrata a otra empresa externa o si seguiremos con Behemendi como en la actualidad.

El representante de Astigarraga comenta que considera que debemos asumirlo nosotros y convertirnos en un referente comarcal ante el Gobierno Vasco. Para ello necesitamos un técnicx de turismo al 100% el 1 de enero de 2025, por lo que nombraría un funcionario interino que permanezca provisionalmente hasta cubrir la convocatoria de la OPE. Por eso dice que lo mejor es que se coja al técnicx de turismo de una bolsa de trabajo y que si no, se haga un rápido proceso de selección.

El representante de Urnieta también comenta que considera que tenemos que asumir el turismo a través de un interino o de otra empresa externa. Además, manifiesta su preocupación constante por la carga de trabajo que tendrá.

La Directora dice que si se quiere que el turismo se asuma de cara al 2025 podemos comunicar a la DFG la modificación de la subvención en septiembre y seguir discutiendo cómo vamos a gestionar el turismo a partir del 2025 a medida que vamos aclarando la RPT. La Comisión ha dado el visto bueno a la propuesta, por lo que la Directora ha quedado en comunicar a la DFG la modificación de la gestión turística en septiembre para que la subvención nominativa se ponga a nombre de la Mancomunidad.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos

6.- Ruegos, Preguntas y Propuestas.

Tokiko Gobernu Batzarraren Akta
2024ko uztailaren 08a

No ha habido participación.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Secretario-Interventor da por concluido el período ordinario de sesiones, tras redactar el presente documento con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Régimen y Funcionamiento de las Entidades Locales. Y de cuanto antecede, doy fe.

O.E./Vº Bº

La Presidenta



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010008-Akta/Acta (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)